

Aldarte



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Emozioak egoera jakin eta zehatzari lotutako unean uneko erantzun afektiboak dira. Aldarte, berriz, egoera animiko iraunkorra da. Hortxe bien arteko aldea: bata neguko lorea da, besteak urte osoan dirau. Gertaera sozial eta politikoak ere izan daitezke emozio iturri. Asko oharkabean pasatzen diren arren, badira barrenak ziztatzen dizkiguten zenbait; pozarren, hunkituta, lur jota, atsekabetuta edo beldurrez uzten gaituztenak. Alabaina, gehienetan, sortu dituen gertaera atzean utzi ahala, emoziook urtuz doaz, desagertu arte. Osterantzean, denboraren joanean emozio bertsuak behin eta berriro sentituz gero, emozio horiek aldarte bihurtu daitezke, iraunkortu, alegia.

Azken asteotan izan ditugu Euskal Herrian kirioak dantzan jarri dizkiguten jazoerak. Batetik, askotariko sentipenak eragin zituen apirilaren 8ko ETAre armagabetzeak. Sumatzen zen Baionan jendea unearen garrantziaren jakitun zela. Ez atzera eta ez aurrera katramilatuta zirudien korapiloari, lan, irudimen eta ausardiaz erantzun zioten Bakearen Artisauak, baita gerora engaiatu ziren herritar guztiek ere. Ezina, ekinez eta konpromiso egina. Nago, neurri handi batean, Iparraldean urtetan landutako aldarteak egin zuela posible armagabetzea horrela gauzatzea. Euskal Elkargoa sortu berritan, konfiantza eta elkarlanerako giroan, gizarte zibila izan zen ekimenaren gidari, erakundeetako ordezkarien babesarekin. Alabaina, artisauak eurek adierazi zuten, Baionakoa mugarri izan arren, beste urrats bat baino ez luke izan behar, herri gisa aurrera egiten jarraitzeko beta ekarri beharko lukeen urratsa. Hortaz, ikusteko dago uneko emoziotik harago izango duen bilakaera.

Herri askotan galdeketak antolatzen dihardu Gure Esku Dagok. Albistegi eta solasaldietan parte-hartzearen ehunekoan jartzen ari dira arreta, baina ikuspegi horretan oinarritzko akatsa dago, galdeketak ez baitira bere horretan helburu, bitarteko baizik. Galdeketaren egunari barik, hurrengo egunari erreparatu beharko genioke, herri horietan galdeketa antolatu izanak utzi duen ondorenari

Baionako biharamunean bukatu zen 20. Korrika. Zein eta inoizko Korrika arrakastatsuna, non eta aldaketaren Iruñean eta Nafarroan. Euskaltzaleok hunkituta barne-barnean sentitu ge-

nuen eguna izan zen, eguzki eta giro alaiz jantzita. Korrikan inoiz baino jende gehiagok parte hartu izana ez da hutsaren hurrengoa, ezta ere Nafarroako eta Iparraldeko erakundeetan euskararen aldeko jarrera duten agintariak egotea. Hala ere, Mertxe Mugika AEK-ko koordinatzaileak adierazi duen bezala, Korrika jai hutsean gera ez dadin gogoeta egin behar da orain, hamaika egunez gure herriak gurutzatu dituen indarra praktikan euskararen hauspo bilaka dadin.

Bestalde, Etxarri Aranatzeko eta Arrankudiagako hasitako bidetik, herri askotan galdeketak antolatzen dihardu Gure Esku Dagok. Albistegi eta solasaldietan parte-hartzearen ehunekoan jartzen ari dira arreta, baina ikuspegi horretan oinarritzko akatsa dago, galdeketak ez baitira bere horretan helburu, bitarteko baizik. Galdeketaren egunari barik, hurrengo egunari erreparatu beharko genioke, herri horietan galdeketa antolatu izanak utzi duen ondorenari. Alegia, ikustea ea prozesua bera aldarte sorrarazle izan ote den, balio izan ote duten aktibaziorako. Sugarra bizirik mantendu ezean alferrikakoa izango baita egindako lana.

Gure herriaren harilkatzean azken boladan gertatuko ekitaldiak dira jarritako adibideok. Kontua da, horiek guztiak gertaera isolatutzat hartzen baditugu, uneko beroaldi eta emozioan geratuko direla. Eta burumakur bolada luzea eman ostean, guk ere badugu emozio puntualetatik harago indartutako gaituen aldarte kolektiboaren premia. Izan ere, aldarteak ekintzara darama, eta egiturazko jardun iraunkorrek mugitzen dituzte errotak. Herri honek bere onena jada eman duela pentsatzetik, onena etortzeaz dagoela sinestera pasa behar dugu, eta horretan gogo betean eta gogotik aritu. Herri aldarte gabe, nekez izango baikara herri. ■